MENDAROKO UDALA

| | |
|---|---|
| **ERAIKINEN FATXADA ETA ESTALKIEN BALDINTZA ESTETIKOAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA** | **ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LAS CONDICIONES ESTÉTICAS DE LAS FACHADAS Y CUBIERTAS DE LAS EDIFICACIONES** |
| Hasierako onarpena eman zaio eraikinen fatxaden eta estalkien baldintza estetikoak arautzen dituen udal-ordenantzaren 10.1 artikuluaren aldaketari, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak urriaren batean emandako 355/2021 Epaian xedatutakoa betez, Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 24an hartutako Erabakiaren bidez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluen eta Toki Araubidearen Testu Bateginaren 56. artikuluaren arabera, eta jendaurrean jartzen da hogeita hamar eguneko epean, Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu (2022.03.09) eta hurrengo egunetik aurrera aztertu eta nahi diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. | Aprobada inicialmente la modificación del artículo 10.1 de la Ordenanza municipal reguladora de las condiciones estéticas de las fachadas y cubiertas de las edificaciones, derivada de la ejecución de la Sentencia n.º 355/2021, de 1 de octubre, del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco por Acuerdo del Pleno de fecha 24 de febrero de 2022, de conformidad con los artículos 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 56 del Texto Refundido de Régimen Local, se somete a información pública por el plazo de treinta días, a contar desde día siguiente a la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (09.03.2022) para que pueda ser examinada y presentar las reclamaciones que se estimen oportunas. |
| Epe horretan, edozein interesdunek aztertu ahal izango du udal bulegoetan, egoki iritzitako alegazioak egin daitezen. Era berean, interesatuen eskura egongo da udal honen egoitza elektronikoan (https://mendaro.eus). | Durante dicho plazo podrá ser examinado por cualquier interesado en las dependencias municipales para que se formulen las alegaciones que se estimen pertinentes. Asimismo, estará a disposición de los interesados en la sede electrónica de este Ayuntamiento (https://mendaro.eus). |
| Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordenantza onartzeko erabakia behin betiko onartutzat joko da. | En el caso de no presentarse reclamaciones en el citado plazo, se entenderá definitivamente aprobado el Acuerdo de aprobación de la mencionada Ordenanza. |
| **10.1 ARTILULUA** | **ARTÍCULO 10.1** |
| *"Operadoreek komunikazio elektronikoen sare publikoak hedatzea eta ustiatzea ahalbidetzen duten lurpeko edo eraikinen* | *"Los operadores deberán hacer uso de las canalizaciones subterráneas o en el interior de las edificaciones que permitan el* |

| | |
|---|---|
| *barruko kanalizazioak erabili beharko dituzte.*<br>*Kanalizaziorik ez badago edo arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik ezin bada erabili, operadoreek aireko hedapenak egin ahal izango dituzte, lehendik daudenei jarraituz.*<br>*Era berean, kasu berberetan, operadoreek komunikazio elektronikoen sare publikoak eta horiei lotutako baliabideak osatzen dituzten kableak eta ekipoak hedatu ahal izango dituzte fatxadetatik; horretarako, ahal den neurrian, aurretik instalatutako hedapenak, kanalizazioak, instalazioak eta ekipoak erabili beharko dituzte. Aireko eta fatxadakako hedapenak ezin izango dira egin ondare historiko-artistikoko eraikinen kasu justifikatuetan edo segurtasun publikoari eragin diezaioketen kasuetan.*<br>*Aireko lineek erasandako eraikinetan egiten den edozein eraikuntza-esku-hartzek horien aldaketa proportzionala ekarriko du, obraren irismenak ahalbidetzen duen neurrian.”* | *despliegue y explotación de redes públicas de comunicaciones electrónicas.*<br>*En los casos en los que no existan dichas canalizaciones o no sea posible su uso por razones técnicas o económicas, los operadores podrán efectuar despliegues aéreos siguiendo los previamente existentes.*<br>*Igualmente, en los mismos casos, los operadores podrán efectuar por fachadas despliegue de cables y equipos que constituyan redes públicas de comunicaciones electrónicas y sus recursos asociados, si bien para ello deberán utilizar, en la medida de lo posible, los despliegues, canalizaciones, instalaciones y equipos previamente instalados. Los despliegues aéreos y por fachadas no podrán realizarse en casos justificados de edificaciones del patrimonio histórico-artístico o que puedan afectar a la seguridad pública.*<br>*Cualquier intervención constructiva en los edificios afectados por los tendidos aéreos conllevara una modificación proporcionada de estos, en la medida que el alcance de la obra lo permita.”* |